Jonas Poisson

Iñigo Aranbarri

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1985 Iñigo Aranbarri
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1985eko abendua
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

41 poema salbatu zituen naufragoa

Gogoan dut batxillerra egin genuen egun urrun eta (medi)okre haietan Fray Justo Pérez de Urbelek hirugarren gradurako moldatua zuen Historia Sagrada 16 pesetetan erositakoa irakurtzen genuenean Jonasen istorioa beti makalago letzen zuela egun hartan tokatu zitzaionak. Itsasuntzi bat ekaitzaren menpe zegoen. Bere burua arriskuan ikusten zuen jendeak borondate zerukoiaren kastigua zela pentsatu zuen eta errudunaren bila hasi ziren. Jonasek lo zirauen istiluaz jabetu gabe eta gizon kezkabakoa ikustean berari leporatu zioten gaitzaren kulpa. Itsasora bota zuten eta une berean ekaitza baretu egin zen. «Y quiso el Señor —jarraitzen du aipaturiko abadeak— que hubiese allí un pez enorme, el cual, viendo que un hombre había caído entre las aguas, abrió sus fauces y le tragó vivo; pero desde aquel encierro tenebroso el profeta invocó el auxilio de Dios, y fué el caso que, a los tres días, aquel gigante de las aguas salió a tierra y vomitó a Jonas en la playa». Profetak beti izan dira indigestoak, poetak bezala, azken finean,

profetak esaldi bat bera idatzi ez duten poetak baitira.

Gero Pinocho ikusi genuen zinean, Jonasen istorioa umeentzako moldatua. Jonas Pinocho zen eta Pinochoren sortzailea jainko ttipi bat bihurturik gelditzen da aurrerantzean, hori badaki liburu honen egileak zera dionean: «Baina jainkoek ez dugu letzerik ahal». Jainkoak sei egun haietan amaitu ez zuen mundua amaitzen ari dira sortzaileak.

Jonasen istorioak harritu egin gintuen; Pinochorenak irrifarrea sortu zigun; eta liburu honek, boligrafoz idazten duen baleak bomitaturiko poema hauek liluratu egiten dute, baina bozeolari batek bere ezkerkadarekin liluratu gaitzakeen gisan, liluratu, egunek duten erritmo neke eta kuasi-liturjiko hori ahaztu arte. Poema hauekin ulertu dut XX. mendeko literatura dastatzeko eta aztertzeko bi iturri bakarrik eduki behar direla kontutan, inola ere ahaztezinak diren bi akzidente: Testamentu zaharra (Testamentu Berria demagogiko-tendenziosoegia baita) eta zinema, ametsak zeluloidezko karrete batean gordetzen dituen asmakizun hori. Irakurlea ez da sekulam Testamendu Zaharra irakurtzen nazkatzen. Bere birtuteak: narratibitatea, imajineria zarbatsua, imajinazio selbatikoa.

Testamentu Zaharraren kopia ori bat da «Cien años de Soledad». Zinemak asko zor dio gizakion epopeia hori idatzi zuenari. Zinemak hortik edan du, baina XX. mendeko literaturgileei aportazio klabe bat eskaini die: Sintetizatzeko ahalmena. Deskribapenak, narrazioak maila minimusetaraino sintetizatzen erakutsi du zinemak eta era berean testu sintetizatu hoiek interpretatzeko armak eman dizkio irakurleari. Barrokismoaren sententzia sinatu du zinemak. Horregatik daude hain urrun Balzac, Dostoiewski edo Hölderlin. Horregatik daude hain hurbil Cortazar, Truman Capote edo Raymond Chandler.

Poema hauek hanka bat, ahulena, Biblian daukate, eta bestea, gotorrena, zineman, eta irakurketaren ondoren atera daitezkeen adjetibo guztiak bi dimensio horietan sailkatuko dira.

Hippien garaia joan zen, hastendu zen kultura orientalak sortutako lilura, eta mendebaldetarrak ageri zaizkigu poema hauek. Poetak aitortzen digu:

«Bizirik bait dirau oraindio
mendebaleko ilargi haitziratsuak».

Heroeak bizirik diraute, Greziako-tradizioak bizirik dirau poema hauek osatzen duten amaraunaren zulo artean. Heroeak (fantastikoak edo historikoak)

ikus ditzakegu lehenik: Orestes, Caronte, Felipe IV, 203. gelako biajantea heroe anonimoa da, Lorelei eta Suzanne sedazko heroisak dira, eta Hollywoodeko goaporik asezinena heroe moderno bat dugu. Referentzia hauek estilo kosmopolita ematen diote liburuari. Poetak asko bidaiatu du apika irakurtzearen poderioz eta poema hauen munduan ez da fronterarik ageri eta etxe bateko gelak bezala pasatzen ditugu lurraldeak, tokiak eta jendeak. Haseran kronista gisa aurkezten zaigu poeta, baina ez iraganaren kronista, oraindik gertatzeko dagoenaren kronista baizik, hain zuzen profetek gauza bera egin zutela (zutela diot gaur egun extingitua baitago arraza hori) ohartu gabe agian: «joao batistak egunero du / zeinek konda geroa». Baina lehenaldiari uko egin zaion une berean nostalgiak, beti nostalgiak, tinbrea jo du: «Elkarri besarkaturik / Sekula itzuliko ez diren / Egun zoriontsu haiek kontatuz».

Azkenik nostalgia usteldua dagoela esateko:

«Baina abiatuak gaitun halare
Basurdeen larrazkenean barrena
Denboraren gela hotzetara
Ustelberak direla jakinez».

Literatur obra guztiek ematen dute munduaren edo historiaren bersio bat. Liburu hau bersioa baino gehiago bisioa da. Imajin oparoak ditu, eta horri aditzak kentzen badizkiogu, historiaren bisio estatizista bat gertatzen zaigu ondorioz, esaldiak hostoak bezala erortzen dira, bakarka, eta irakurleak aidean, lurra jo aurretik harrapatu behar ditu, eta kasualki gehienetan. Poesia ez dago beste inola irakurtzerik, aidean hostoak harrapatzen diren bezala ez bada.

Zinea ez da pantailan ilunpen ikusten duguna. Zineak gauzak ikusteko era berri bat ekarri du. Poema hauek eguneroko gauzak ikusteko era berri bat eskaintzen dute. Imajinak, esaldi batean laburtzen direnak gehienak, amaigabeak dira. Horrela, balearen sabela «basamortu epel» bat da, edo «Erregearen platerean etzan zen ilargia», udaberria «mendiak kolorezko paperez jaztea» da, «Busak semaforoetan urtu» egiten dira, heladoak bailiren, Ameriketako konkistari buruzko poema epiko batean, heriotzera bidaltzen ditu konkistadoreak esanez «konkistadore harroak / nora doaz balea zaharrez inguraturiko / hondartza lehorrerantz ez bada», edo elizaren ustelkeria hiru hitzetan esateko «Botafumeiro bete herdoilez» dio poetak.

Historiarekin jostatzen diren poema kotidianoak dira hauek.

Jaberik gabeko poemak, ondoren kolektiboak, balea zahar batek algaz beteriko hondartza batean bomitatuak dira, lehenen, bigarrengo edo hirugarrengo pertsonan, baina bi musa bereziki laztantzen dituzte poema hauek: Suzanne eta Lorelei. Suzanne sekulam ikusi ez baina beti maiteko dugun musa da, Donostian kontzertu baten ondoren Leonard Cohenek Suzannetaz hitzegiten ihardun zigunetik, eta are eta ederrago imajinatzen dugu Leonard Cohenek deskribapen fisikorik eman ez zigulako. Baina zinea sortuz geroztik bi pertsona mota daude munduan: onak eta txarrak. Hori izan da Hollywoodeko sinplifikazioaren garaipenik handiena, zinearen aportaziorik ahulena. Eta Lorelei puta bihurtu den Suzanne da. Suzanne onari Lorelei gaiztoa irazan dio. «Suzannerik desbideratuena» deitzen dio. Suzanne, aldiz, maitekiro tratatzen du: «Euri ttanttek oro jaxpeatzen dinate / Hire arratsalde berri hau», eta aurrerago «Hitaz oroitzen ate aurretan butanozaleak».

Giza paisaiaren sintesi postaligrafikoa eskaintzen dute poema hauek, eta poetak probeta askotan sartu du tinta poesia kolektibo bat eraikitzeko. Liburu ho-

nen zehar gerrate handi bat gertatzen da, ikustezina baina gertatzen da, virusak elkar hiltzen ari diren bezala, inork ikusi gabe, eta amaieran paisaia triste bat ageri da irakurle/ikuslearen aurrean: «Ogizaleak doberman hilak / Biltzen hasi ziren zelofan urdinetan», edo «Bazter batean nanuz inguraturiko umeak/ Kriseiluak txikitzen zituen harrika». Azkenean, igande arratsalde triste bat bezala amaitzen da guztia: «Begira nola doan denbora bera ere / Barku bat bezala / Handia, Ixila, Prezisoa / Galderaz betea». Eta tristeziaren kontra ez pildorarik, baizik prostituzioa bezain zaharra den beste elementu bat: alkohola. «Mundua ardoaren bueltan bueltan dabilen / errobera dela kopreni duen arte / bere begi bakarrez irrifarrezka».

Naufrago batek hilabetero poema bat zekarkion botila jasotzen zuen bere islan, bost ozeanotako ur korronteak islara heltzen bait ziren. Berrogei urtetan 480 poema bildu zituen, baina azkenean barku ttiki batek salbatu zuen, eta poema guztiak kabitzen ez zirenez, berrogei eta bat bakarrik gorde zituen. Hori da liburu hau.

Pako Aristi

«Baleek, ozeano huts hutsean, ur azalean dautzanean, torpedo baten biktimak liratekeen jitoko submarinoak dirudite. Eta beraien sabelean, Jonas tipi askoren tripulazionea irudika dezakegu, zeinen radarra, orain, baliogabea den; untzilariek uko egiten diote beste Jonasekin harremanetan jartzeari, ela amore emanda, herioaren aiduru daude».

(Antonio Tabucchi)

«Yahavehk arrain handi bat xedatu zuen Jonas irents zezan, eta Jonasek hiru egunez eta hiru gauez iraun zuen arrainaren sabelean».

(Jonasen liburlatik 2, 1)

eztia darion mendiaren baitan
egunero laztantzen da
joao batistaren gorpua
egunero jasotzen
ezpainarteko kamamila lorea
egunero dibujatzen
izarrak sabel guri xurian
joao batistak egunero du
zeinek konda geroa

berenice

Dicebant mihi sodales si
sepulchrum amicae visitarem,
curas meas aliquantulum fore levatas.

Itzalik ezagutu gabeko hortzak,
hortz luzexkak maite nituen,
basoetan, zeldako leihatila estuan,
ene hatzartean zetazko hari mehez
elkar katea nitzakeen hortz zurixkak.

Hortzak maite nituen, hortzak,
horregatik natza agian hemen,
basamortu epel honen erdian,
arratsero lurrera erortzen zaizkidan
hortz labain hauei begira.

antiokiak

Ez du inoiz ere Antiokiak
Bere Zeinua arkitu
Desertuko hobi kodizeetan
Zenbat ezti
Liho eta urrezko apezaren begietan
Zenbat oin arrasto
Suge Handiaren lurraldean
Untzien joanetorriak jo gaitu azkenekoz
Elkarri besarkaturik
Sekula itzuliko ez diren
Egun zoriontsu haiek kontatuz
Lurrean arraiak eginaz
Antiokiar zaharren gisa

antiokiak II

Eta konta ditzakegu ere
Orestesen eguneroko lantuaren
Bila irtendakoen izenak
Ilunpean izkiriatuak
Beti eraztuna
Martxoko euripean
Gorazarre Egiptoko langostei

parkeko irudia

21 mila liberetan erosia preso
zisneen aintziran herioaren irudia
planeta ororen maitaleak bereiz zitzakeen
karezko lur zirriborratuak ere
hala nola zituen ezagunak
hiriko antenetan katibu
harrapaturiko orkatilak
lurrinik hegazkorrena eta
pianista beltzen goante galduak
egun hojaldrezko hortzek
mugatzen diote dastamena
egunen arpegi deslaiak
bereiz ditzake soilik
zisne lotien begietan

felipe IV. getarian

Oihal zabal bat zen patioan
Zoroek margotu zuten gaua
Dio irrifartsu Sebastian de Mora Bufoiak
Gauez jauzi ziren zikin, potolo
Zaparrada egun batez ilunez ase
Zutoihal odolduen bularretan
Esnatutako bele bentzutuak
Itsasizkinak ttipiagotzen
Olatu tontorretan
Ehortzi ohi zituzten
Oihal zatiz estalita
Dorreko leihoaren argipean
Erregearen platerean etzan zen ilargia
Doi doi lokartzen zihoalarik

happy day

gaur ere ez da etorriko pentsatu nuen
eta limonada botilak zabalduz ospatu zen
desertuaren bihotzean zure urtebetetzea
hain neba zintzoa izatearren
negarrez izan gaituzu garaipenean
izpien besoetan etengabeko dantzetan
sapho eta neu ezpainartetik erori zitzaizkidalarik
eta arrats bera ere, beazun eroria
trikuaren gainean amildu zen
gaur ere ez da etorriko pentsatu nuen

gargan

gargantua makala
jaitzak berriro etengabean
gure ohe ametsak
eta bete ala leher
                pum
zine fokoak bezala
kristalezko tximeletak
                desabiratuz
umel palazioak
errege bideak
kolore urdineko printze tipiak
erraldoiak amesten
gargantua triputsa
zetroaz kolpekatzen
    arratoi gosetiak kaleratzen
desio haut gargan
eta hire eskuetan pausatzen
ene begirada erorkorrak
bihotz azalen gainean eserita
goizaldeko habiak kontatzen

telegrama bat jaso dut goizaldean
hegoaize lehertua zen bailaran
paradisua iadanik neurea dela baieztatzen
nola ikus nezake orain nere burua
atariko haginpean etzanda
Bosforoko hegi oparoaz oroitzen
27ko udan ene eskola lagunak
San Sebastian edo Biarritzetik bidalitako
muxika usaineko postalak
behin eta berriz —kaleak arrain solugarriz—
eguzkia erabat ihartu arte ahoratzen
udazkenez teilak urratuz
iragaiten diren einaren partantza
ninietan zoriontasunez gordetzen

lamiak

baziren txokolatezko lamiak ere
ur gozoetan murgiltzen zirenak
mendiak kolorezko paperez jantzi
eta azken zubia atzean uzten zuten
bidaiarien gogoetak
erreka harripean sekuluetan
ezkutatzen zituztenak

lorelei

Gutun arrastoetan hintzenan Lorelei
Hitzen heriotzetan kamiotako
Suzannerik desbideratuena
Lurperatuak egunaren atarian
Haurtzaroaren urratsak
Etzegon badakin jadezko irudirik
                Pagadian
Etzegon bidezidorrik gogora
Baina abiatuak gaitun halare
        Basurdeen larrazkenean barrena
        Denboraren gela hotzetara
Ustelberak direla jakinez
Arras ezagunak zamalzainentzat
        Gorniak erretakoen
Zeinurik gabeko
Koaderno hauskorrak

gaur heldu zait konturatu gabe
gure katuarekin mintzatzeko tenorea
eta honela luzatu gara egunsentirarte
hitzei hitzak beste hitz bat lotuz
mundua ardoaren bueltan bueltan dabilen
errobera dela kopreni duen arte
bere begi bakarrez irrifarrezka

postale bat bidal nezake gaur goizean

gehiago landu zenezake negarra
katu gosetien gisa
adreilu bigunez eraikitako ziutatean
begira girnaldaz piztutako abenidak
etxe biribil horiek
gau amaikaitzak diruditenak
eta ibai odoltsuak
herri zaharra mugatzen
karretera altua ere
nondik amiltzen diren
azken aingeruen itzalak
conffeti koloretsuak
ziutate irreala
negu goiztiri bateko lainope nabarrean
eta porlan muino mindulinak
aeroplanoen hegadaz engainatuak
agure petral bat
eta zakur deslaiak eta otsanak
eta harroputzak marrubizko
edifizioak begirada isilenak

mututuz

apuntea

2 postale nipoi (Sairuyo arratsaldez, geisa itsu bat)

3 hegazti poema

5 harri dizdiratsu

Zer espero zenuten bada?

Erneguarekin amestea?

Nortasun arrastoa?

Bakardadearen berri?

ama handia

Ama Handia
Hona hemen guziaren izena
Hitza erlearen zai dago
Mendi eta errekak zeharkatu eta
Atzoaren erresumarantz doanarena
Melankolia da
Ama Handiaren hitzik maiteena
Gizaki narratzen
Azken haizkorakadak
Negar malutaz jasotzean
Guziak
Guziaren guzi
Hitz berriaren
Ama Handia

uda

Uda arorik amotsena
Lamaraz taxututako begiradak zaintzen
Ez da bakardade lingirdarik
Mortuko itsasertzetan udan
Kanpandorreko xaguzaharrak
Alargunaren bular ubelean dirauela
Zerutik ebakitako euliei so
Busak semaforoetan urtzen
Galerazirik negarra udan
Isilak gutunen sekretuak
Eta mutu oheak
Ez da lore iheskorrik udan

poetarena

hainbat koadro
hainbat keinu gogaitu
txerta dezaket ilunabarrero
zuretzat-dio
zazpi urteko poetak
kartoiztaturiko basetxauntzetan
lo datzan lehergailua da
poesia william worsworth
hainbat eztarri tximistaz
hainbat murrail asunez erreak
otoitzik gabeko arkitu hautelako
petril ondoko mizpira mazkalak
ahoan soroko ocelleak eskuetan
zer dira dagoeneko herri hutsak
zer eguzki arrotz bat
erromes marroiak ikus ditzakeen
halabeharraren hostoak ezik

nora hoa suzanne

Zabal eta Gori sufrezko eguzkia
Odol lodiz zikindutako praka
Arradunen mugetan
Euri ttanttek oro jaxpeatzen dinate
Hire arratsalde berri hau
Txarolezkoa tren txartel marroiak
Esperantzan iltzaturiko ile koipetsua
Espaloi grisei ahaztu zaien hitzegiten
Hitaz oroitzen ate aurretan butanozaleak
Nora hoa Suzanne zipriztin gorriz
Utz itzan gure alboan hazkazal odoleztatuok
Iraunkor —garaileen ezpata itsuak bailiren—
Leiho kondenatua Perboratozko muxu bat besterik

higan dun harosa

Zinala hintzenala eta
Bastan nintinan bart
lzarrak ziren zarastu
Eta buliztu orenak

Kazania izatera zeldu
Ez hintzenala lozetu
Eta mostorra eskatuz
Atzoko soak isali

Ustiriari ekin nionan
Suririk gabe, zilei

Nostemak aldera
Polez klozoturik
Obirutik atera nintinaten

Suzunea ari zinan

cuzcoko hondartzan

nora doaz bedatse baten zai
zelai urdinetan dautzan
gorpu ustelen gainean dirauten
txori mehatz sutsuak
nora doaz zaldiak noraezean
hiria galdu ondoren
garaipenaren zai diren zaldunen
egonezin amaigabearen ondoren
nora doaz udazken goiz batez
etsipenez gainezka irtendako
konkistadore harroak
nora doaz balea zaharrez inguraturiko
hondartza lehorrerantz ez bada

txanpon batzugatik (guerra florida)

Baso hurbilenari kantari
Barnetik atera ezin dudan aingerua
Hondakinen mamietan
Bart e Nicola eskailburuan
Tarta apurrak eskuetan
Hamar minutu besterik ez eta
Azteken irrifarrea duzu
Mineral egosiz betea
Inbasioz asea
Hain alaia gurasoen gela
Zurezko altzari berriekin
Zenbat urte mila eskerretan
Potosi biluzi horretan
Gailur lumatuetako sua leihoan
Barrezka akuarela zurbilak
Barrezka ilargiarrainak
Emeki biluzten arratsa

focus niger

Gorde itzan faborez itsuon jolasak
Ttanttaka darizun zoriontasunean
Orainaren Estazio nimino honetan
Astiro pentsatzea Filmetan maitatzea
Da Kinkerrinean nabil Zubietan
Klarion hautsez seinalaturiko Esnebidearen
Hotsak hedatuz apenas ezer gehio
Kromatismo arrasto ttipiena
Gardantxilo izoztuarekin
Eskupean laztantzen dudalarik
Oportotara erori zaizkigun
Kakarraldoak biltzea
Bezain maitea zain dagoenekoz
Errebista paperetan bildutako
Serraila bilatzea
Urruntasunaren bestaldeko isladan
Eldoradoko ateak Birtristurak

goiz galduak

Bourbon kolorez bustitako kupuletatik
Erakutsi ziguten egunsenti ileluzea
Botafumeiro bete herdoilez
Bazter batean nanuz inguraturiko umeak
Kriseiluak txikitzen zituzten harrika
Argi ezpal meheak erakutsiz
Bestean odoldutako izara bat genekusan
Usaluma urratuak ezer gehiago apika
Ez zen besterik gordetzerik
Ogizaleak doberman hilak
Biltzen hasi ziren zelofan urdinetan

mintza gaitezen birtuteaz

Mintza gaitezen birtuteaz.
Izan nahi eta izan ginenaz.
Ala, dena ahantziz, inguratzen gaituzten
pareta zurbil hauek jasotako
zoriontasun guziaz.
Posible da eszenario bera izatea.
Bizirik bait dirau oraindio
mendebaleko ilargi haitziratsuak.
Mintza gaitezen sagastiaz,
betikotasunaren sagarraren garraz,
suz harrotutako lurralde oparoaz.
Aguro, bagaramatza eta.

izan

Zer ginen. Zer izanen garen.
Galderak, hordiunetan barreiaturik,
Espaloi gautuetan esnatzen dira.
Baina jainkoek ez dugu letzerik ahal.
Eta halare, arratsero,
Ekiaren dekadentziaz mendiratzen gara
Otaloreak behatzeko.
Eta ez dugu beste ezertan erreparatzen,
Pinportek, denborari otoizka,
Pixkana pixkanaka zabalduz
Ixiltasunean irensten gaituztenarte.

garai txarrak

Gogaiturik nago.
Gogaiturik egoteko garaia baita.
Ez dakit noiztik. Ez dakit noizarte.
Ahaztua dut. Lehen,
Posible zitzaidan gogoratzea,
Horrela baizegokigun.
Egungoa ez da haren hondarra besterik.
Alvaroren taberna. Rua ilun bat.
Errez esaten da.
Errez esan behar da.

ezaguera

Ezagutzen hasia naiz,
Eta aski da horrekin,
Lehen nintzena ez izatearekin.
Zer den ezagutza, zer jakinduria,
Zer bidaia, zer geroa,
Ezagutzen hasia naiz,
Eta iadanik
Ezina zait damutzea.
Etzait gehio axola
Greko zaharren itsasoa.
Etzaidala axola diot.
Azken finean irla,
Untzia, Hondartza,
Agurra, Ohantzea,
Aurrez ezagututako
Bidaiaren baitan dautza.

agerian jarri zaitut

Saiatzen naiz, baina bazoaz.
Alferrik zabiltza argia
zeureganatu nahiean.
Asko izan dira zure aurretik.
Agerian jarri zaitut,
eta ezagunak dituzte
elkarrekin iragandako egunak.
Demagun ez zarela zu izan.
Benetan ez zarela izan.
Ez zinake zoriontsuagoa izango.
Dena den, ez da hori bakarrik.
Ahalegin ttipi hauez gain,
beste zerbait ere baitago...
Alferrik zabiltza.
Ez da errorik hemen.

hitzegin dezagun

Fatua zer den diozu.
Begira eguna herioa deitzen,
Nola daramatzaten azken izpiek
Gerizpe zokoratuenak,
Soseguak betirako laztanduz,
Portuko aide xamurraren gisa.
Begira noia doan denbora bera ere.
Barku bat bezala,
Handia, Ixila, Prezisoa.
Galderaz betea.

bost lerroen zerrenda

Arrazoien zai musker blaituak koprezko arratoiak
Eskutari hordien amets lurrunduak
Borreroen ohantzetako zetazko izaren biloa
Ortzearen hazkazalek eraikitako bideen bihotzak
Marrubi erraldoien habiak ihintz eta engaino

203. gela

Plaia aldera doazen autoen koloreak
ditu gogoan egunsentiro
203garren gelako biajanteak
irrifarre eta muxu beltzak
maleta tipian tolesten
eguzkia granvietan erosia ikusi
ahuleziak jandakoen izenak
banan bana iltzatu arte
ehunera heltzeke seguraski
lanbroak konparazio txarrak
egin ditzake balkoian
putzua izpilu bat esaterako
azken finean zubietako brontzeak
laztantzeko (galerazirik dagoela
jakinik) emakume gizen baten
gorputzean
urrun itsasoaren maindirea
203garren gelan

urrezko gurdi majikoa

edozein dendetan eros daitekeen
bozeolari tipia besterik ez haiz
egunaren ispuluan barrena
noraezean gabarrak ordu lapurtuetan
ezin izan diagu atzo eskuartean gozaturiko
itsaso laranja hura uki usain
giltzapean zeukaten gorderik
pareta zartatuen etxean
zein tristeak garen batzutan
eta etzanda uzten haugu
horixketan ziutateko lanbropean
abiatzeko tenorea heltzen
adokinez bigundutako itsasadarrean
eta ikusiko gaituk apika
urrezko gurdi majikoetan urruntzen
hire ezpain gordinak eskuetan

in memoriam leopold b.

Bloom pote bat eskeini zenidan
Eta bera euliz betea

hamarretako expresoa

hamarretako expresoan
doaz mortu itzalak
—norberaren finituak—
berandu duzu langak ixteko
pitxin
gauaren mozkor ahaztuak dira
bi hari mehe
ikus dezakezun guzia
andeneko hitz txikituak
behatz galduak
hari horietan sostengatutako
hare erloju hautsiak

ni hiltzen naizenean tra la

elastiku blaitua
ça-va ça-va moteletan
zein epel den heriotza
koba ilunetako leihotik
zigarro muturrak zapaltzen ditut
untza gorpu hotzean lo
zain mikatzez saretzen
très bien
                sargori goritik
bakarti zubi lehertuei
keinuka
                (caronte ihesi)
batel ondoratuari
(dauphine xurian
très bien urrutiratzen
ibai bazterreko errautsak
                harrotuz)

hitzik gabeko paper horiei begira

Aran ale asko jan ohi dut jauna kronista ezaguna
Izan nintzela gogoratu izan dudan bakoitzean
Badakizu nigan egon zirela Granadako ate eternoak
Nigan biribil Juan Sebastianen bidaiak
Are gehiago Dilubioaren papiro unibertsalak ere
Milaka maskara banatzen harri zurienean
Nigan enperadoreen bizitzak 9 hilabetez puztuak
Eta bart zure jardinean galdutako zaldieri beltzak
Zure larrosa horiak, katilutxoak txikitzen
Capo sentiberen arteko inbiriak nigan jauna
Hemezortzi bakardadez urkatutako oro
Eta sinbolisten antologia perfektuak
Nigan egon ziren jauna judu etsituen izarrak
Hollywoodeko goaporik asezinena
Loreleiren irrifarre faltsua ere
Ze kronista on izan nintekeen, baietz jauna
Errege eguneko arratsalde hartan
Perfezioz salto egin izan banu Bihotzen Zubitik

kamerinoko elkarrizketak

Eskuetan Argiak Eta Poemak
Eta Leotardo Horidun Makarenak
Teilatu Hegaletan Isekirik
Inozoen Begi Lauen Gisa
Zein Labainak Abenidetako Soinak
Zein Labanak Izena eta Papereztaturiko
Jainkoak Lapitz Gorriaren
Gartzela Eliptikoan
Zorretan Aukera Ditzagun Lainabeherak
Hortzakadaka Zauritutako Liburuan
Utzi Diot Hautsontziak Egiteari
Orain Leopardoa Atsegin Dut
Milaka Kolorez Jantzirik Laminetan
Eta Argizaria Bere Negarra
Ah Orrazten Ari Zara
Gozoa Eta Lasaitasunez Betea

hans sach.en kanta

Heriotz koadrikulatua so
Armiarma itsuen azken desio sutsuan
Desertuetako ezpain puztuak zartatuz
Urratuz soseguaren itzalak
Eta lekukorik gabe landuriko ditien inuntzia
Ez gaitun ezkutatu inon
Ez dinagu lorik eginen padura jelatuetan
Nurembergeko leizeetan jositako oihal goibelen
Muxupe eternoan apika
Azal gezaren daldarrak dastatzeke
Hondarrezko hasperen bila
Biribiltasun ozenenean

adaggio

kezkati zaudela dio egunak
gizen eta zizaraz betea
esku pitzatuen armonian
zergatik zaitut baina hain hurbil
betirako zaramatzan erretrato horian
murrailetako erliebeak egiaztatuz
ez dira egunen apopilo hilak baino
tximinietako kehetan
ilunabarrero ezkutuka datozenak
eztulka ari dira sukaldean
sar eta lasai hitzegin dezagun
bidaian ezagututako plaietako
gizon moreei buruz
zergatik daude hain urrun
kapelaz eta antioju italianoz
panteoi beltzetako bare erreak janez
sagar bat mantalean
beraiek bakarrik soma lezakete
gure alaitasuna mandioko
ohe deseginean saltoka
saltoka gabiltzala

hiltzen ari da pianoa jonas
ken iezaizkiozu esteak gainetik
gogoratzen zara tejeria gazteaz
duela 85 urte hil zuten
bi hamarreko besterik ez zituela
urruna desiatzearren
bai lehorra joan zitzaigula urtea
geza zen aidea eta horia eta
eternoa eta etsipenez oholeztatua
kanta ditzagun gure koplak
gatzagiz ihurtzitako notetan
jo jonas poisson jonas jo

itsas balada

Ziraunak begiratuz doaz agian
herdoilez hordi
ozkolpean ginenen ezpainak
gogoan dituzte lemazaina
pikea eta hausterrez estalitako
ailorbea zilarrezko eki tipiekin bat
horra harritxintxorrez jantzitako izaroa
haizkorarik hitsena itsasoaren ahoan
loak lausoa lotuz
legar barea edota barrika liz
unaren arnasa begi bakartzat
horra gizurdeen gaztelua
lumazurtzen erresuma

charlevillen horditurik

te deumaren aitzin notak rumetan itoaz
saint jacqueseko organista zitala
goizero bezala koruko irudiak irendu ondoren oro
neke birjinaz altxa eta urkatu egiten da gaur ere
alanbrezko ezpain dirdiratsuak kiosko antzuetan
nahigabe ia josten kausitzen elkar
pleyadeak enboteilatuz erretenak multiplikatuz
doazen bitartean gotikoki eta han
abailduriko farola hitsen gonapean
ainitz gezi zorrotzen zaztadak dzazt
lehertzen diren zelai berdezko espaloian
gernu loditan aise nabiga zezakeen
untzi mozkorraren alboan arthur
absenta botila hutsa biluzik datza
unibertsu erraldoi mazkala
morturik gotorrena ma fou suzanne

Baflearen Urte Internazionalaren hondarretan.
Biba Sanfermin.